

## «Kontuak argi eta garbi»

Izenburu honekintxe gure aldizkariak historian zehar izan zituen ekonomi gorabeheren berri zehatza eman genuen, duela hiru urte, JAKIN 21ean (278-280 or.).

Orduan bezala diogu orain, kristalezko etxea izan nahi duela JAKINEk. Horretan saiatzen gara. Izpiritu horrekin, bada, urteko azken zenbaki honetan, gure oraingo diru-kontuak argitu nahi dizkiogu harpidedunari, asmotan eta dirutan zertan garen, alegia.

Gure diru-iturri nagusia ezaguna da: harpidetza. Aldizkariaren salmentak 4.000.000 pasa ematen digu. Bigarren diru-iturria, erakunde publikoak dira. Aurten 1.152.000 pta. agindu digu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Ez dugu beste edo bestelako sarrerarik.

Sarreraren ondoan handiak, dexente handiagoak, dira gastuak. Aurtengo gastuak 9.750.000 pta.koak izan dira. Defizita, beraz, 4.500.000 pta.takoa da.

Eta, halere, JAKINEk aurrera darrai, naturaltasun osoz jarraitu ere. Nola da hori? Nola bizi da ekonomikoki JAKIN?

Esplikazio luze-zabaletan ihardun beharrik ez dugulakoan, hona hitz gutxitan gure jokamoldea:

1) **Idaz-lankidegoa behar baino gutxiago ordaintzen dugu.** Idazlea/ itzultzailea ordaintzen dugu, bai, baina ez behar adina, ezta ere guk nahi adina. Ordainketaren printzipioari eutsiz, 1977tik gaur arte beti ordaindu dugu; aurrerantzean, agian, laguntza hoberik ez badugu, birplanteatu beharrean aurki gaitzke.

2) **JAKIN taldeak doan lan egiten du.** Lan profesioaletik landa, ordu asko doan lan eginez bakarrik egin daiteke JAKIN gaur egun. Horrelaxe

dago *oraindik* euskal kulturgintza. Ezaguna da JAKINen irudi publikoa. Inork gutxi ezagutzen ditu, haatik, gure aldizkariaren lan-baldintzak. Kultur militantismoz mantentzen da JAKIN, militantismoaren poderioz. Jasotzen dugun diruak argitarapen-gastuetarako ematen du, eta ez askoz gehiagotarako. Hortik gorakoa, JAKIN taldeak jartzen du, bere lana doan eginez.

Aurrera begira, zer?

Kondizioak holako edo halako, JAKINEk aurrera joko du, harpidedunen konfiantza duen bitartean. Hona aurrera egiteko gure oinarriak eta eskariak. Hiru oinarri hauetan finkatzen dugu geure etorkizuna:

1) **JAKIN taldeak orain arteko izpiritu eta gogoarekin jarraituko du lanean, Jainkoa lagun.** Ez dugu amore emango, ezta etsiko ere gure kultur langintza honetan harpidedunek gugan uste on duten bitartean. Hitza ez dugula jaten frogatua dugu jadanik.

2) **Euskal erakunde publikoek laguntzarik luzatuko digitela sinetsi nahi genuke.** Ez zaigu sana iruditzen JAKINen eta JAKIN bezalako beste aldizkari batzuren egoera kondizio horietan luzarago mantentzea. Euskal kulturgintza oraindik horrela dago, *baina ez luke egon behar*. Laguntza-eskariaren gure erizpideak ulerterrazak dira oso: lankideon lan-kondizioak erosoheago bihurtzea eta produktua —aldizkaria bera— hobetzea. Gehiegi eskatzea al da? Euskararen eta euskal kulturaren egoera minimoki ezagutzen duenak badaki ongi ez dagoela hor pribilegiarik edo/eta diskriminaziorik. Kultur normalizazioak hori eta gehiago eskatzen du.

3) **Harpidedunen laguntza izango dugula espero dugu.** Urtero urtero harpidedunen kopurua handituz joan zaigu. Hauxe da, egia esan, gure lanaren saririk estimagarriena, harpidedunen ugaltzea. Seinale ezin hobe, gerora begira.

Behin eta berriz aldarrikatu duguna errepikatzen dugu orain, alegia, harpidedunak direla aldizkariaren euskarria, gure sostengu ekonomikoa eta morala. Urtearen hasieran aurreratzen diguten diru-kopuruari esker atera ahal ditugu urteko lau zenbakiak. Harpidedunak dira, baita, gure askatasunaren eta independentziaren kondizio eta garantia.

Aldizkaria beti saiatu da, bere aldetik, harpidedunari abantailak eskaintzen, harpideduna maintzen. Merkatuan baino merkeago eskaini diogu zenbait liburu, batipat UZEIko hiztegiak. Baina batez ere aldizkaria bera merkatuan baino merkeago etxeraino bidaltzen diogu. Harpidedunari esker, merke eskaini diezaiokegu aldizkaria. Hona ezin argiago gure kultur politikaren adierazgarri bat: aurtengoa, 1984ean, aldizkariko orrialdea 2,5 pta. kosta zaio harpidedunari, eta guri geuri 4 pta.

Abonatuaren aldeko prezio-politika honekin jarritu nahi dugu, noski. Halere, bi urtez prezio bera mantendu ondoren, 1985erako ordain-saria igo beharrean aurkituko gara, inprimategi-arazoak oso gora egin bait du. 2.000 pta. izango da urte osoko JAKINen harpidedunari. Ezin esan garesti denik.